

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroan lanean ari diren pertsonak 3.600 gehiago dira 2011ko hirugarren hiruhilekoan

Nafarroako Gobernuak azpimarratu du Foru Erkidegoaren langabezia-tasa (% 11,68) Espainiako batez bestekoa baino 10 puntu baxuagoa dela

Viernes, 28 de octubre de 2011

3.600 pertsona gehiago izan dira lanean Nafarroan 2011ko hirugarren hiruhilekoan (% 1,33 aurreko hiruhilekoarekin alderatuz), eta data horretan lanean zeudenen zifra, guztira 273.900 zen, [Biztanleria Aktiboaren Inkestak \(BAI\)](#) gaur goizean jakitera eman duenaren arabera.

Nafarroako hirugarren hiruhilekoko langabezia-tasa % 11,68koa izan zen; Espainiako autonomia erkidegoen artean baxuena da, eta Espainiakoaren batez bestekoaren (% 21,52) ia 10 puntu azpitik geratu da. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko

Laura Goicoechea Zubelzu kontseilariak datu hori aintzat hartu du eta nabarmendu du iragan hiruhilekoan langabezia-tasa ia puntu batean jaitsi dela aurreko hiruhilekoaren alderatuz; aldiz, Espainiako batez bestekoa ia puntu baten sei hamarren baino zertxobait gehiago igo da. Goicoechea kontseilariak azpimarratu duenez, une hauetan Nafarroan 36.200 pertsona daude langabezian; Espainian, berriz, 4.978.300 pertsona. "Eta hemen eten bat egin nahi dut; izan ere, Nafarroa eta Espainiako biztanleria aktiboa eta langabeziaren portzentajea aztertzen baditugu, argi ikus daiteke Nafarroako langabezia-tasa ez dela bere biztanleria aktiboarekin korrelatiboa, askoz txikiagoa baizik; eta horrek adierazten du enplegu-egoera hobea dela Erkidego honetan", gogoratu du kontseilariak.

"Gainerako herrialdearen aurrean, non 144.700 pertsona gehiago lanik gabe dagoen, Nafarroan jaitsiera garrantzitsua izan dela argi ikusi da. Zehazki, Nafarroan 3.600 pertsona gutxiago dago lanik gabe 2011ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz, hau da, % 9,04 gutxiago. Aldi horretan



Industriako langilea.

enplegua izan duten pertsona horietatik, 2.100 gizona eta 1.400 emakumezkoak", esan du Enpleguko titularrak; Nafarroako emakumezkoen langabezia-tasa autonomia erkidego guztien artean baxuena dela nabarmendu du, halaber.

Azkenik, Goicoechea kontseilariak argi eta garbi esan du "urte arteko terminoetan, 2.300 pertsona gutxiago dagoela lanik gabe, hau da, 2010eko hirugarren hiruhilekoko langabe-kopuruarekiko. Alde horretatik, emakumezkoen enplegua 2010eko irailtik 2011ko irailera asko hazi dela ikusten da; tarte horretan 3.100 emakumezko nafarrek enplegu bat aurkitu dute".